


BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Pierre Petit. Atelier Nadar. Bibliotheque nationale de France. Stanisław Julian Ostrorog. Paul Frecker (London). Rudolf Kriziwanek. Austrian Ministry of Culture Felix Potin. Bidegileak funtsa. KUTXATEKA

PABLO SARASATE, NAZIOARTEAN ERRETRATATUA

Pablo Sarasate, musikaria eta musikagilea, Iruñean jaio zen 1844an. XIX. mendearen amaieran nazioartean argazki gehien egin zizkioten euskal pertsonaietako bat izan zen eta garaioko erretratugile onenentzat posatu zuen, batzuetan bere biolinarekin lagunduta. Parisen igaro zuen ikasle garaian erretratatu zuen Nadar estudioak, Frantziako hiriburuko garrantzitsuenetako bat. Parisen bertan, XIX. mendeko beste erretratugile handi batek ere bihurtu zuen hilezkor Sarasate, Pierre Petitek. Petit ezaguna da Eiffel Dorrea eta Askatasunaren Estatua eraikitze prozesuen irudiengatik, baita Victor Hugo, Balzac, Berlioz eta Delacroix bezalakoei egindako erretratuengatik ere. XIX. mendeko beste argazkilari enblematiko batzuek ere erretratatu zuten Sarasate, hala nola Waleryk Inglaterran, Kriziwanekel Austrian edo Hanfstaenalek Alemanian. Bere irudia, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran modan zeuden bilduma askotan ere agertzen da, adibidez, Felix Potin Parisko janari-dendetako bezeroentzat sortutako albumetan. Horietan itsasteko kromo motako argazkiak banatzen zituzten. Hain ziren sonatuak pertsonaien argazki eta kromo bilduma horiek, non tabako paketeetan ere irudi horiek banatzen baitzituzten, besteak beste, Pablo Sarasaterenena. Bere kontzertuek Europan eta Amerikan zehar birak ematera eraman zuten oso gaztetatik musikari iruindarra. Artikulua ilustratzen duen erdiko irudia bere bira europarretako batean egin dago. Stanisław Julian Ostrorogek Sarasateri argazkiak egin zizkion Londresen. Ostrorog poloniar noble erbesteratu bat zen, Krimeako gerrako beteranoa. Pablo Sarasate Biarritzen hil zen, 1908an.